


Euskal biztanleriaren %7,7 lekuz mugitzen da

Migrazio-saldoa berriz izan da positiboa; 2002. urtean sei mila pertsona baino gehiagoko goraka izan da.

Euskal biztanleriaren %7,7ak bizileku aldaketaren bat egin du 2002. urtean zehar. EUSTATEN datuen arabera, mugimendu hori %71,8an Euskal Autonomia Erkidego barruan eman da, eta gainerako kasuetan erkidegotik kanporako mugimendua eman da.

2002. urtean, Euskal Autonomia Erkidegotik joandakoak baino 6.237 pertsona gehiago etorri ziren. Bada, Erkidegorako migrazio-saldo positiboa duen ondoz ondoko hirugarren urtea dugu hau. Lurraldeka, Bizkaiak 3.425 pertsona gehiago izan du; beraz, kopuru absolutuetan migrazio-saldo altuena dauka. Aurreko urtekoaren aldean saldoa %7,6 altuagoa izan da. Arabak migrazio-mugimenduen ondorioz 2.710 pertsona gehiago izan du; beraz, aurreko urtekoaren aldean %17an gehitu du bere saldo positiboa. Gipuzkoak 103 pertsona gehiago izan du.

1. grafikoa.- Migrazio-saldoaren bilakaera Lurralde Historikoka



Iturria: EUSTAT

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduak bakarrik kontuan hartuz gero, 2002. urtean aurrekoan baino 793 pertsona gutxiago etorri ziren; hau da, %5eko gutxitzea eman da. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko migrazio-saldoa oraindik negatiboa da, 3.653 pertsonako galera izan baita. Bestalde, atzerriko herrialdeetako

etorkinen migrazio-saldoa positiboa da; 9.890 pertsona gehiago dago eta horrek, aurreko urtekoaren aldean, %17,5eko gehikuntza ekarri du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 162.218 kasutan aldatu dira ohiko bizilekuak:

- Kopuru horretatik, 79.335 kasutan udalerrian bertan aldatu dira bizilekuak.
- Erkidego barruko mugimenduak, hau da, bai jatorria bai helmuga Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan dituzten mugimenduak 37.186 izan dira.
- Era berean, kanpoko edo erkidegoaz kanpoko 25.967 inmigratio gertatu dira. Jatorria gure erkidegoaz kanpoko udalerri batean eta helmuga Euskal Autonomia Erkidegoan duten mugimenduak dira horiek.
- Azkenik, kanpoko edo erkidegoaz kanpoko 19.730 emigratio gertatu dira. Jatorria gure autonomia-erkidegoko udalerri batean eta helmuga gure erkidegotik kanpora duten mugimenduak dira horiek.

1. taula.-Migrazio-mugimenduen eta -saldoen bilakaera. Euskal Autonomia Erkidegoa.

Urtea	Emigratioak		Inmigratioak		Migrazio-saldoa
	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira
1988	18.103	100	8.014	100	-10.089
1989	17.633	97	10.120	126	-7.513
1990	15.771	87	10.930	136	-4.841
1991	14.751	81	12.140	151	-2.611
1992	13.668	76	9.006	112	-4.662
1993	14.096	78	9.554	119	-4.542
1994	16.179	89	10.809	135	-5.370
1995	16.130	89	11.316	141	-4.814
1996	14.356	79	11.299	141	-3.057
1997	14.234	79	12.496	156	-1.738
1998	16.585	92	14.372	179	-2.213
1999	17.291	96	16.103	201	-1.188
2000	17.462	96	20.022	250	2.560
2001	18.696	103	25.775	322	7.079
2002	19.730	109	25.967	324	6.237

Iturria: EUSTAT

Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasun geografikoa eta emigratio-tasa txikiak dira, Estatuko batez bestekoarekin erkatuta.

Kanpoko edo erkidegoz kanpoko mugikortasunari dagokionez, 2002. urtean EAEko mila biztanletik 22 mugitu dira (%29 Araban, %23 Bizkaian eta %16 Gipuzkoan); alabaina, mugikortasun hori gainerako autonomia-erkidegoetakoarekin erkatuta txikia da, azken hauetan mila biztanletik 34 mugitzen baitira.

EAEko **emigratio-tasa**, 2002. urtean, %9,4koa izan da; eta atzerriera egindako emigratioa kenduz gero, %9,1ekoa, autonomia-erkidego guztien batez bestekoaren

hiru puntu baino gehiago azpitik. Gaztela-Mantxa, Madril, Errioxa, Balearrak eta Ceuta-Melilla batez bestekoa baino gorago dabilta; eta %14 eta %37 artean daudenez, EAEko tasaren gainetik gelditzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoari bertatik jasotzen duten biztanleria baino gehiago **ekarri dioten autonomia-erkidegoak** hauek dira: Kanariak, Murtzia, Aragoi eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak. 38 pertsonako saldo positiboa dago autonomia horiekin. Atzerriarekin, 9.890 pertsonako saldo positiboa izan da 2002. urtean.

Euskal Autonomia Erkidegoko emigrante gehien **erakarri** duten **autonomia-erkidegoak** ondokoak dira, eta hurrenkera honetan: Gaztela eta Leon, Kantabria, Madril eta Nafarroa. Lauren artean, gure erkidegoa uzten duten bi lagunetatik bat hartzen dute.

Atzerriko nazionalitatea duten **inmigratzaileak**, 2002. urtean, 12.184 pertsona izan dira, hots, aurreko urtean baino %7,3 gehiago, eta gure erkidegoko sarrera guztien %47 izan dira. 1988az geroztik, nabarmen gehitu dira atzerriko nazionalitatea duten immigranteen sarrerak Euskal Autonomia Erkidegoan. Kopuru absolututan, 500 sarrera ingurutik 12.000 pasara igo da 2002an, hau da, atzerritarren immigrazioak 24rekin biderkatu dira hamalau urtean. Kontuan izan behar da atzerriko immigranteetatik zenbait beste autonomia-erkidego batzuetatik etorri direla. Zehazki, 2002. urtean 3.389 kasutan gertatu zen hori.

Titulu-mailari dagokionez, titulu-maila apalenetakoak dira immigrazioen %49 eta emigrazioen %51,2; goi-mailako tituluetan, ordea, emigrazioen %16,8 eta immigrazioen %18,5.

Emigranteen **batez besteko adina**, 38,5 urte, inmigratzaileena (34,3) baino 4,2 urte handiagoa da.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp